

noaua

Eguneratua izan da
herriko kale izendegia

Akerra gaztetxearen
arteurren jaio

Igandean, "Gazta zati bat"
dokumentala Sotegin



**“Izanak dirau, 1512”
dantza ikuskizuna
Oiarde kiroldegian**



pikabea

Aseguru Artekartza

GESTORITZA ZERBITZUA JARRI DUGU!

Autoen esku-aldaketak, Garraio-txartelak...

SEGURO MOTA GUZTIAK, ESKATU AURREKONTUA!

- autoak ·etxeak ·bizi-aseguruak ·komunitateak ·merkataritza-dendak
- enpresak ·pentsio planak ·istripu aseguruak ·ontzi aseguruak

Telf: 943 37 11 18 telf/fax: 943 37 19 97 Plaza Uzturre, 8 Lasarte-Oria pikabea@infonegocio.com J-0078EUS

WELLA
PROFESSIONALS -REN ESKUTIK,
KOLORAZIO MUNDUAN
EMANDAKO PAUSORIK
HANDIENETAKOA AURKEZTEN
DIZUGU:

ILLUMINA Kolorazioa

- ✓ ILEAN, BESTE EDOZEIN KOLORAZIOAK BAINO %70
GEHIAGO ISLADATZEN DU ARGIA
- ✓ %100 ESTALTZEN DUTEN KOLOREAK
- ✓ BABES HAUNDIAGOA DUTEN KOLORE NATURALAGOAK

INTZA
ILEAPAINDEGIA

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN
ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU
Eguerditan irekia! Nagusia 8. 943 36 36 41

Albiste iruditan

Mugen gainerik, elkartasuna lantzen

Urdirbako Bilxokua elkarte eta Usurbilgo Nafartarrak kultur taldea elkar-lanean aritu ziren afari baten bueltan, pasa den urriaren 27an. Hamalagarren urtez jarraian, elkartasunezko sagardo afaria antolatatu zuten. Eta afari horretan bildutako dirua, Seaska elkartearen baitan antolatua dagoen Integrazio Batzordeari eman zitzaion. Urdirbako udaletxeko gelan egin zen afaria eta irudian dira sukaldariak eta garbiketa lanean aritu ziren langile finak, tartean hainbat usurbildar. "Baina aurrera segitzeko ez genuke izango hainbat herritarrek ez baligukete lagunduko. Beraz, mila esker lagundu gaituzuen guztioi", adierazi digu Lontxo Zubiriak, argazki hau ekartzearekin batera.



Urriaren 27an Urdirbaten izan ziren, elkartasun afarian parte hartzen.

Laburrean

Artisautza Azoka, berezia izan da aurtengoan

Denetarik artisauak bildu ditu beste behin Aitzaga Elkarteak antolatutako Artisautza Azokak. Ohi bezala, azaroaren 1ean ospatu zen ekimena frontoian. Artisautza Azoka honen edizioa berezia izan da. Auzitegi Nazionalaren aginduz sei urtez itxita egon ondoren, Aitzaga berriz irekita zegoela ospatu baita azoka.

Hondakinen prebentzio astea, azaroaren 17tik 24ra

Hilaren 17an hasiko da Auzokopostarien I. Batzarrekin. Amaitu berriz, astebetetz zabalik izango den hondakinen inguruko erakusketarekin. Tartean, bideo aurkezpenak, ontzi arinen sailkatze plantara bisita, "gure kaleak garbiago nahi ditugu!" ekimena edota hondakinen sortzez besteko gaiari buruzko hitzaldia programatu dituzte.

Erle Eguna azaroaren 25ean ospatuko da

Hilabete honetako azken igandean ospatuko da XIV. Erle Eguna. Txapelketak edota azoka izango dira aurten ere, azaroaren 25ean, Erle Lagunak bilgunekoei antolatutako ekimenean. Berrikuntza gisa, hainbeste buruhauste eragiten ari den liztor asiarrari buruzko erreportajea proiektatuko dutela Sutegin.

noqua

Kultur Elkarte

Bordaberi, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Itxial preboak



Itxial Herrira?

Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Arantxa Zulaika,

publizitatea@noaua.com.

Diseinu berria: Erroitx S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,

Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Aloña Esnaola,


Olatz Rezola, Iratxe Begiristain.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

Izan ginenaz, garenaz

Aurrera begira bizigara. Bihar-etziko urgentziak nola gairitu asmatu nahian. Orainari ihesi.

Dena da atzorako. Gauzak patxadan hartzeko astirik ez dago. Dena da atzorako. Horrela eskatzen ditugu gauzak, eta horrela agintzen dizkigute. Eta azkenean, katramilata bizi gara batzuk eta besteak. Orainari ihesi. Bihar-etziko urgentziak nola gairitu asmatu nahian.

Bien bitartean, egia da, gauzak egiten goaz. Bai, baina nola? Ez dugu horretan pentsatzen hasteko astirik hartzen-eta. Bihar-etzirako kontuak bideratzen nahikoa lan dugu. Eta gainera, badakigu, artean zaharrak kunplitu gabe oraindik, mandatu berriak iritsiko direla. Eta horrela, bucle amaiga-

bean. Hausnartzeko astirik hartu gabe. Erretrobisoreari erreparatu gabe. Aurrera beti.

Horrela bertaratu ginen, aurreko ostiralean, Sutegira. Presaka. Datorren zenbakiko kontuak presatzen, web orrialdeko azken oharra igotzeke... Juxtu antzean iritsi ginen. Hastear zela. Eseri ginen, burua handik oso urruti genuela. Lan kontuetan; gure gauzetan...

Hizlaria, ordea, ekitaldiari hasiera eman orduko kartak partitzen hasi zen. Bertaratuen artean, jokoa banatzen. Ezuste horrek lur hartzen lagundu gintuen: "aiba, egon ez ezik, parte hartu ere egin behar-ko diagu!".

Idoia Torregarai zen hizlaria. Eta Sutegin elkartu ginenak, bi hitzetan esanda, NOAUAko lagunak.

Kultur elkarteko nahiz aldizkariko sortzaile izandako batzuk, kolaboratzaile diren besteak, lankide ohiak, bazkide batzuk, zinegotziak, zinegotzi ohiak, alkatea, zuzendaritzan izandakoak, zuzendaritzan direnak gaur egun...

NOAUA! Kulturaldiaren harira antolatu zen hitzaldiak, ezustean, mahainguru itxura hartu zuen. Anekdotak eta pasadizoak tarteko, NOAUA!ren sorreraz eta gaur egungo NOAUA!z hitz egiteko aukera izan genuen. Ez gara ginenak. Beste garai batzuk bizi ditugu orain. Baina zaindu nahi dugun elkarte baten kide gara. Sustatzen jarraitu nahi dugun ekimen bateko partaide.

Batzuentzat sorrerako kontuak izango ziren interesgarrien. Aurre-

karietan erreparatuko zuen besteren batek. Anekdotaren batekin etxeratuko zen Sutegiko *happening*-ean izan zen besteren bat. Han izan zen batek baino gehiagok, seguru, alboan utzi ditugun hainbat egitasmoei heldu beharko diegula pentsatuko du orain.

Patxadan aritzeak dakarren giroan, bihar-etziko kontuak ahazteko aukera izan genuen une batez. Azaletik izan bazen ere, garenaz eta izan ginenaz hausnartzeko astia izan genuen. Etorkizun hurbila irudikatzen apunteak ondo gogoan harturik, Sutegiko erakusketagelari jarraitu genuen kontu kontari. 16 urte ez dira alperrik pasa eta horien lekuko da aldizkariaren bueltan egokitu dugun erakusketak.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre

Ika-Mika

Hezkuntz ereduaren «Aukera»

Aukera taldekook, 2011ko azaroaren 28an Usurbilgo udal-etxean erregistroan, eskola publikorako lur sail bat izendatzeko eskatuz, eskari bat sartu genuen. Gaur egun, oraindik, erantzunik ez dugu jaso. Baina, urriaren 19ko NOAUA!ren bitartez (506. zenbakia) irakurri dugu, udal-etxeak antolatu duen hezkuntz ereduari buruzko parte hartzeko prozesua martxan jarri duela, eta hau, eskola publikoa eskatu zuen guraso talde bati erantzuteko dela (ikus urriaren 19ko NOAUA!n Enara Arbizuren hitzak, "Etorkizuneko hezkuntza eredu adostea helburu"). Horren harira «Aukera» taldekook ondokoa jakinarazi nahi diegu herritarrei:

Lehenengo, guraso talde horrek

«Aukera» izenpean sartu zuen eskaria. Guraso talde horri erantzuten baldin bazaio, bere izena erabiltzea bidezko dela iruditzen zaigu.

Bigarren, eskariari erantzutea beharrezkoa dela uste dugu. Eta eskarian, lur sail bat eskola publikorako izendatzea eskatzen dugu, eta ez parte hartze prozesu bat hastea (nahiz eta bidezkoa iruditu parte hartze prozesua abiaraztea).

Hirugarren, parte hartze prozesuan egoteko gonbidatuak izan gara, baina gure ordutegiarengatik ez dugu parte hartuko talde eragilean. Dena den, herritar xehe moduan parte hartuko dugula ziurtatzen dugu.

Laugarren, hezkuntz eredu eztabaidatzeko parte hartze prozesu hau,

baldintzatuta jaiotzen dela adierazi nahi dugu. Hezkuntz bateratua esaten da, baina hezkuntz eredu bakarra esan nahi da (ikus urriaren 19ko NOAUA!, Enara Arbizu eta Mertxe Aizpuruaren hitzak, "Etorkizuneko hezkuntza eredu adostea helburu"). «Aukera» taldekook, hezkuntz eredu aukeratzeko eskubidea aldarrikatzen dugu herritar ororentzat, eredu bat zein bestea izan: ikastola, eskola txikia, eskola publikoa edo erlijioso. Usurbilgo udal herrian ziklo osoa beteko duen eskola publikoaren aukera nahi dugu. Eta etorkizunean herria aberastuko duela eta herritarren onerako izango dela iruditzen zaigu.

Bostgarren, ez dezagun ahaztu, herritar multzo esanguratsu bat (40

ume gutxi gorabehera), eskola publikoaren aukera egin duela (eskola txikiak zenbatu gabe), baina zoritxarrez ondoko herrira eraman behar dituzte beren haurrak Usurbilgo herrian dagoen hezkuntz eredu nahi ez dutelako.

Seigarren, gure herri honetan, eskola nazionalaren mamua dago oraindik. Eta ez dugu uste, oraingo eskola publikoa, garai hartakoa bezalako denik. Zorionez eskola publikoak euskaldunduta daude eta euskara zein euskal kultura bermatzen dute ikastolak edo ikastetxe erlijiosoek bezain ondo edo hobeto.

Aukera Euskal Eskola Publikoaren aldeko taldea

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. Ale bakoitzean ez dira bi Ika-mika baino gehiago argitaratuko. Ika-mika bat baino gehiago iristen bada, NOAUA!k idatzi horietako bat hurrengo ale batean argitaratzeko eskubidea izango du. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Hurrengo alea: azaroak 16. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 12.

Kale izendegia eguneratu dute berriz ere



Irudiko kale berriak Olarriondo du izena.

Udalbatzak Usurbilgo kale izendegia eguneratzea erabaki du berriz, urriaren 30ean burutu zen azken osoko ohiko bilkuran. Agerreazpin eraiki dituzten babes ofizialeko etxebizitza berriak direla eta, kale berri bat sortu da bertan. Kale horri Olarriondo izena jartzea onartu zuen udalbatzak iraileko osoko bilkuran, eta horrekin batera, kale horretan dauden etxe atarien zenbaki eta izenak eguneratu zituzten.

"Geroztik ordea, Olarriondozarra base-rrian, hartutako erabakian aurreikusitakoa baino atari bat gehiago dagoela ohartu gara. Hala, hartutako erabakia aldatzea hobetsi da", jasotzen du joan den astean onartu zen proposamenaren berri ematen duen udal txostenak.

ALDAKETA, AHO BATEZ ONARTUA

Aldaketa aho batez onartu zuen udalbatzak. Kale izendegia, jendaurrean jarriko da orain, "eta helbidea aldatu den etxebizitza guztietara jakinarazpen bat igorri-

da, aldaketaren berri emanez".

Honenbestez, Munalurra kalean hasi eta Aranerreka pareraino luzatuko den kale berriak, kale izendegia modu honetan eguneratzea ekarri du:

- Olarriondoberri: "Olarriondo kalea, 1" (lehen, Sakabanatuak 5).
- Luarri: "Olarriondo kalea, 3" (lehen, Sakabanatuak 7).
- Olarriondozarra: "Olarriondo kalea, 5" (lehen, Sakabanatuak 6 A).
- Olarriondozarra: "Olarriondo kalea 7" (lehen, Sakabanatuak 6 B).
- Agerreazpi: "Olarriondo kalea, 11" (lehen, Sakabanatuak 8).

BAITA ETXE BERRIENENAK ERE

Hauetz gain, babes ofizialeko etxebizitza berrien helbideak ere kale izendegian jasotzea onartu da.

- BEP 3.1. partzela etxea-12 etxebizitza: "Olarriondo kalea, 2".
- BEP 3.2. partzela etxea-12 etxebizitza: "Olarriondo kalea, 4".
- Udal baratzak: "Olarriondo kalea, 9-11".
- ETP 1/1 partzela. Udal ekipamendua: "Munalurra kalea, 26".

2013rako, hauek izango dira taxi tarifa berriak

Datorren urterako taxi tarifa berriak onartu ditu udalbatzak, urriaren 30ean burutu zen osoko ohiko bilkuran. Bozkatu aurretik, azalpenen tartean Jone Urdanpilleta zinegotziak berri eman zuzenez, prezio berriak aplikatzeko bi proposamen aurkeztu ziren Buruntzaldea mailan. Bat AGITAX Taxiaren Gipuzkoako Elkartearena, bestea G.TAXI Gipuzkoako Taxilarien Elkartearena. Buruntzaldea mailan AGITAX elkartearen proposamena hobetsi zen, eta hauxe da hain zuzen, urriaren 30ean gobernu taldeak osoko bilkurara eraman eta gehiengo osoz onartua izan zena. Usurbilgo udalbatzak hartutako erabakia, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari helaraziko zaio orain.

2013RAKO TARIFAK

Lan egunetan, goizeko 7:00etatik 22:00ak arte:

- Gutxieneko tarifa: 5,0098 euro.
- Egindako kilometroa: 1,0651.
- Itxaron ordua: 20,4384.

Gauero 22:00etatik 7:00ak arte, larunbat, igande eta jai egunetan:

- Gutxieneko tarifa: 5,9714.
- Egindako kilometroa: 1,7061.
- Itxaron ordua: 32,1208.

Ostegun honetan, Parekidetasun Kontseiluaren bilera

Urriaren 18an bildu zen lehen aldiz Parekidetasun Kontseilua. Bigarren bilerara, ostegun honetarako, azaroaren 8rako deitu dute, 19:00etan Potxoenean. Gizon eta emakume, "usurbildar guztiak gonbidatuta daude", adierazi dute Udaltetik.

Zuen
publizitatea
hemen

© 943 360 321
publizitatea@noaua.com

**BENTA
TABERNA**

HANBURGESAK 

Oilasko erreak
Ogitartekoak

943 36 93 05



ARRANDEGIA
PELLO

PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL 

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Mende laurdena bete du Akerra

Akerra inguruan ibili diren lagunak bildu nahi dituzte larunbateko jaialdian

Hainbat kontzertu eta gazteen biltoki izan den Txokoaldeko Akerra Gaztetxeak, jada mende laurdeneko historia du. Orain arteko ibilbidea gogorarazi, eta gaztetxe atzoko eta gaurko kideak biltzeko urteurren festa antolatu dute larunbat honetarako, azaroaren 10erako. Kalejira, bazkari, joko eta kontzertu artean igaroko dute Txokoalde girotu asmo duten jai eguna.

Urrian izan zen urteurrena, ospatzera zoazte larunbatean?

Jon Osa. Iazko urrian bete zuen urteurrena. Berez, 1986ko urrian hasi zen kontzertuak ematen. Egia esan, 25. urteurrena zenik ere ez ginen jabetu momentuan bertan. Kontzertuak antolatzen segi dugu. Lehen Akerran zeuden kideekin hitz egiten aritu ondoren, zerbait ospatu behar genuela konturatu ginen.

Lehendik Akerran egondakoekin elkarlanean antolatu duzue festa eguna?

J. O. Triki poteoarekin hasiko dugu eguna. Gero argazkien proiektzioa eta hitzaldia antolatu dugu. Hitzaldirako lehendik egondakoekin hitz egin dugu, Akerraren historia nondik datorren, lehen zer zen, eraikinarren historiaren berri jasotzeko, baita argazkiak aurkitzeko ere.

Bazkari baten bueltan bilduko zarete. Txartelak salgai dituzue?

J. O. Aitzagan eta Irratin, 15 eurotan. 14:30etan izango da; paellada lehenengo, eta gero biribilkia. Bazkalostean kanta tipiko eta atipikoak abestuko ditugu, giro pixka bat jartzeko.



Jon Osa eta Iñaki Argotek eman dizkigute larunbateko ospakizunen inguruko xehetasunak.

Jokoak eta kontzertuak gero?

Iñaki Argote. Arratsaldean jokoak izango dira. Akerrari bakarrik ez, Txokoalderi bizitasuna ematea da asmoa. Eguraldiak laguntzen badu ekitaldiak kanpoan egin nahi ditugu. Bazkaria frontoian egin beharrene Txokoalde erdian. Jokoen ostean, Akerran izan arren lekua, eguraldiaren arabera, eguna ondo bukatzeko kontzertuak ere kanpoan egiteko asmoa dugu.

J. O. Kontzertuak 21:00etan hasiko dira eta gau osoz egiteko asmoa dugu. Goizean goiz baratxuri zopa emango dugu, jendea etxe aldera joateko.

25 urteotan jende desberdina pasa da Akerratik. Jaialdi hau zeini zuzendua legoke?

I. A. Denei. Hasieran zeudenei, orain daudenei eta bertatik pasa diren guztiei. Denek egin dute zerbait aurrera ateratzeko. Gu orain zerbait egiten ari garen bezala, aurretik

jendeak egin duen lana ere eskertu behar da.

Zuek duela bi urte hartu zenuen, aurretik zebiltzanen lekukoa. Une hura nola bizi izan zenuten eta bi urteotako esperientzia zer moduzkoa izan da?

J. O. Duela bi urte eta erdi jaso genuen lekukoa. Ordutik, kontzertuak bi astero edo hilean behin antolatzen hasi ginen. Bi urte pasa dira eta nahiz eta azken sei hileotan hainbeste kontzertu ez egin, saiatu gara dinamika bat egiten. Ideia izan genuen ostitaleroko kontzertuak emateko. Talde dezente pasa dira ordutik, Akerratik. Esperientzia nik uste oso aberasgarria izan dela, denon artean bildu baizara. Gaztetxe txandak denon artean egin ditugu. Ostiraletan jendea herrian tabernan egon beharrene, edo lokaletan sar-

“Gure aurretik, jendeak gaztetxean egin duen lana ere eskertu behar da”

tuta, Akerrara dator eta giroan sartzen da, eta denon artean gau on bat pasatzen dugu.

Herritarrentzat baina baita kanpotik dato-

zenentzat ere, Akerra erreferentzia gune izan da urteotan?

I. A. Kanpotik etorri den jendea, oso gustura geratu izan da beti. Ez dugu inongo kexarik izan. Zaila izan arren, jendea mugitzen saiatzen gara. Nahiz eta herriko jendea bakarrik egon, taldeak eskertzen du egoten den giroa. Azkenean beti ere, kontzertua egiten dugun bakoitzean, jendea mugitzen da, positiboa eta eskeretzekoa dena.

Usurbilgo Gaztetxea ireki izanak, aurrera begira, izango du eraginik Akerran?

J. O. Usurbilgo Gaztetxea ireki

rra Gaztetxeak

denetik, beste eraikin bat du-gu. Akerra azkenean musika areto bat bezala geratu da. Bi gaztetxeen artean, noizean behin batean eta gero bestean, kontzertuak antolatzen saiatu behar gara. Bien artean elkar-lana ere ez, baina parekideta-sun bat egoten ahalegindu behar gara, biek batera jarrai dezaten. Akerra denbora dezentete doa kontzertuak ematen. Denontzako lekua bada Usurbilen.

Akerran egon diren taldeen artean, zenbait usurbildar igaro dira bertatik. Akerra Gaztetxeaz zer diote?

I. A. Azaroaren 10ean Mendeku Itxuak kontzertua eskainiko du. Kontzertuarena haiei komentatu zitzaizenean, gustura joko zutela esan zuten. Lehenengo aldiz, Akerran eskaini zutela kontzertua, eta hori ez dela ahazten. Azkenean



Kontzertu asko egin dira urte hauetan guztietan Akerra gaztetxean. Argazkiko kartela 2002ko udaberrikoa da.

guretzako ona da herriko taldeen parte hartzea izatea, herriko jende gehiago mugitzen

dutelako eta beraientzat ere onuragarria, kontzertua eskaintzeko aukera baitute.

“Akerrak xarma berezia du, jendearekiko gertutasun bat du”

Non eta nolatan irekitzen da Akerra Gaztetxea?

Jon Osa. Lehen zentrala zen lekuan. Bertan elektrizitatea sortu eta Txokoalde guztira zabal-tzen zen.

Zenbat jende pasa da?

J. O. Talde desberdinak pasa dira, lauzpabost bai behintzat. Belau-naldi desberdinak pasa dira. Talde dezente ere urteetan zehar. Guri testigua pasa zigutenean aurretik, jende gehiago ere egona zen.

Zerk mantendu du Akerra bizi-rik urteotan?

J. O. Areto bat izan da Usurbilen. Akerraxarma berezia du, jendearekiko gertutasun bat du.

Eszenatokia ere bertan dago eta jendea hor sentitzen duzu eta batez ere, ostiraletan hasi ginetik ekitaldiak antolatzen, ekitaldi gehiegirik ez zen izaten Usurbilen eta gazteak gure artean elkartzen ginen. Eta musika entzunez, ondo pasatzen genuen ostiral gauetan. Xarma horrek eta Usurbilen egon den areto bakarrenetakoa izateak, asko lagundu du 25 urteotan.

25. urteurrena, etorkizunera-ko inpultsoa izan daiteke zuentzat?

Iñaki Argote. Inpultsoa hartua dugu. Dinamika batean ari gara, aurrera begira ere ari gara. Bada-kigu nondik nora eta zer helbu-

rurekin goazen. Gu geurera goaz, beti hobetzen saiatuz.

Amaitzeko, gonbita herritarrei.

I. A. Deia egiten diogu nahi duen guztiari. Berezik lehen egon zirenei, orain daudenei eta pasa diren guztiei. Beraiek ere historia honetan leku bat dute. Garai batean gaztetxea ireki zutenak, lanean egon direnak han ikustea ere guri ilusioa egingo liguke. Beraientzat ere bada egun hau.

J. O. Denen artean egin dugula 25 urteotan Akerra zabalik mantentzea. 25. urtemuga berezia izango da. Eskerrak eman bertan lanean egon diren guztiei eta ia larunbatean bertan elkar ikusten dugun.

AKERRA GAZTETXEAREN 25. URTEURRENEKO EGITARAUA

AZAROAK 10 LARUNBATA

12:00 Triki poteoa Txokoalde auzotik. Ondoren, Josu Tellabideren hitzaldia. "Txokoaldeko zentrala eta historia", gaztetxean.

13:30 25 urteotako argazki emanaldia+brindixa, Gaztetxean.

14:30 Kantu bazkaria Txokoaldeko plazan edo frontoian (egurraldiaren arabera). Kantu tipikoak eta atipikoak. Txartelak 15 eurotan salgai Aitzagan eta Irratin.

Arratsaldean, joko modernoak, Txokoalden.

21:00 Kontzertuak gaztetxean: Mendeku Itxua, The Zepo, U.K. Bill, 13 Left to Die, Itzartu + sorpresak.

Egunsentia baino lehenago, baratxuri-zopa.

Bakartxo Iguaran, udal liburutegia: “Helduen kasuan, nabarmen igo da mailegu kopurua”

Bi liburu elektronikoko kaleratu eta ordenagailu eramangarri bat jendearen eskuragarri jarri dugu”, aurreko asteko albistean hala zioen Bakartxo Iguarane, udal liburutegiko langileak. Honako elkarrizketan, gaur egungo joera berrietaz eta Sutegin dituzten nobedadeetat mintzo zaigu.

Berrikuntzek zer eragin izan dute garai bateko euskarrietan?

Bakartxo Iguaran. Gazteen kasuan irakurtzeko modua aldatu da. Irudietara oso ohituta daude. Gazteentzako liburu batzuk saiatsen dira, erdi prosa erdi komikia izaten. Helduen kasuan, nabarmen igo da mailegu kopurua. Liburutegiaren erabilera izugarria da.

Zer modutan interpretatzen duzue igoera hau?

Liburutegiak azken urteotan zerbitzu kopurua asko ugartu du. Liburuak edo entziklopediak eskaintzen ziren garai batean. Gaur egun ordea, betiko euskarriak, ikus-entzunezkoak (filmak gehienbat), eta Internet. Horrek guztiak erakargarriago egin du liburutegia, eta gainera, doako zerbitzu bat da. Irakurleek esan izan digute, lehen tarteka bai, baina orain ez dutela liburutegietatik erosten. Halere, irakurle multzo txiki bat galdu dugu: lehen ere irakurle amorratua zena, liburuak bosnaka eramaten zituztenak. Haiek liburu elektronikora pasa dira, erosotasunagatik. Multzo txiki hori galdu dugu, baina haiei esan nahi genieke, zirkulu komertzialetik kanpo dabilzan liburuak liburu elektronikokoan aurki ditzaketela liburutegietatik. Halere, galera hau krisiarengatik etorri diren beste erabiltzaileekin konpentsatu da.

Irakurlearen perfila aldatu da?

Oro har, urte gutxitan aipagarria da zenbat jende gerturatu den liburutegietara. Hemen ere ikusi dugu zenbat gerturatu den liburutegia herritarrengana. Ze etxekoa den, hori izugarri sumatzen dugu. Oso integratua dago herritarren artean.



Bakartxo Iguarane adierazi digunez, “Twist” izan da aurtan gehien eskatu den liburuetako bat.

Zein dira aurrera begirako erronkak, bestelako aldaketarik izango denik sumatzen duzue etorkizunean?

Edukia eskaini beharko genuke gure blogean, jendeak bere gailuetatik etxean jaitsi ahal izateko. Erabiltzaileek eskatzen duten zerbait da. Ez dugu jartzen ezin dugulako, egile eskubideekin arazoak ditugulako. Interesgarria izango litzateke, liburutegien zerbitzua Eusko Jaurlaritzaren esku egonik, plataforma bezala beraiekin argitaletxeekin negoziatzea. Eta hartara, guk edukia eskaini ahal izatea. Hori ordea epe motzera ez da gauzatuko, ez dakigu epe ertain edo luzera gauzatuko den. Bestalde, liburutegien etorkizunaz ez dakigu ezer. Elkarrizketa bat irakurtzen nuen, eta bertan ziotenez, liburutegi publikoak desagertuko dira, liburuazainak ez. Azkenean, beti kudeatu behar izan dugu informazioa. Hau da, merkatuan dagoen eskaintza guzti horretatik guk egin behar dugu aukeraketa bat eta aukeratzen dugun hori modu antolatua batean eskaini herritarrei. Berdin egin beharko dugu eduki digitalekin, guk jarraitu beharko dugu. Gure zeregina ere lehen hala izan da eta hala izaten jarraituko du.

AZKEN NOBEDADEAK, SUTEGIN Zer nobedade dituzue liburutegian?

Erdaraz, ahoz aho dabilzanen artean;

“Las 50 sombras de Grey”. Emakumeentzako literatura erotiko bezala saldu dutena. Halere, gure mostradorean bakarrik esan du gustatu zaiola.

“El tiempo entre costuras” erreserban ditugu oraindik, argitaratu eta bi urtera. Ken Follet-en liburu berriak atera aurretik erreserban ditugu baita. Best Seller horiek dira gehien eskatzen direnak, nabarmen. Euskaraz berriz, ahoz ahoko lan gehiago egin behar dugu. Jendeak guri galdetzen digu.

Sutegiko liburutegiko bezeroek kontsumitzen al dute euskal literatura?

Erdaraz eskatzen dute gehienek. Gehienek guri galdetzen digute ia euskaraz zer irakur dezaket. Euskaraz nabarmentzekoen artean aurtan, “Twist” gehien funtzionatzen ari dena. Gazteentzat, “Errautsak” nobela beltza, arina, gustura ari dira irakurtzen. Edo Iñaki Irasizabalen, Alberto Ladron Aranaren edota Fernando Morilloren liburuak. Horiek beti mugitzen dira eta guk ere asko aholkatzen ditugu.

Bada beste gazte bat, Joseba Peñaren liburu, Igerabideren “Hauts bihurtu zineten” beti aholkatzen dugu, edo Lertxundiren “Zorion perfektua”, Iban Zalduaren ipuinak... Haurren kasuan, “Geronimo Stilton”, “Diario de Greg” euskarara itzulita daude. Irudi asko dituzten liburuak dira. Euskal literaturan oso izen onak daude; Igerabide, Pello Añorga, “Eta zer?” saila...

“Urte gutxitan aipagarria da zenbat jende gerturatu den liburutegietara”

UDAL AURREKONTUAK LANTZEKO SAIOAK HERRITARREKIN

2013ko aurrekontuak lantzen hasiak gara eta lanketa horretan herritarrak ere partaide egin nahi ditugu. Horretarako ondorengo saioak antolatu ditugu:

- 1.-KALEZARgo Auzo Elkartean (Aranen), azaroaren 12an, 19:00etan
- 2.-ZUBIETAko Kaxkapen, azaroaren 13an, 19:00etan
- 3.-URDAIAGA / TXOKOALDEn Erroizpe Elkartean, azaroaren 15ean, 19:00etan
- 4.-AGINAGAn Ludotekan, azaroaren 19an, 19:00etan
- 5.-SANTUENEAKo Auzo Elkartean, azaroaren 20an, 19:00etan
- 6.-KAXKOAN Potxoenea Kultur etxean, azaroaren 22an, 19:00etan



BILERA HAUETAN PARTE HARTZERA GONBIDATZEN ZAITUGU ETA
DENON ARTEAN USURBILGO UDALEKO AURREKONTUAK AZTERTU ETA
LANDUKO DITUGU.



Kulturaldiak jarraipena izan

Aldizkariaren inguruko erakusketaren inaugurazioan jende ugari elkartu zen

Jende ugari batu da NOAUA! Kulturaldiko lehen bi ekitaldietan. Asteburu honetan izango du jarraipena Kulturaldiak: larunbatean, Alurr dantza taldeak "Izanak dirau, 1512" dantza ikuskitzuna eskainiko du Oiardo kiroldegian. Eta igandean, Jon Maia bertsolariak zuzendu zuen "Gazta zati bat" dokumentala ikus ahal izango dugu Sutegin.

NOAUA! aldizkariaren 500. zenbakiaren harira, erakusketa bat ipini dugu Sutegin. Inaugurazioan, lagun ugari elkartu ziren. Udal ordezkariak, alderdietako kideak, NOAUA! aldizkariako laguntzaileak, bazkideak... Denei ongi etorri beroa eman zien Ana Aizpuruak, NOAUA!ko lehendakariak.

Erakusketaren inaugurazioa bezain atsegina izan zen Idoia Torregaraiak Sutegiko auditorioan zuzendu zuen solasaldia. Erakusketa zabaldu baino ordubete lehenago izan zen Torregarairaren saioa, baina bazkide batzuk galdu egin zuten. Onartu behar kale egin genuela komunikazioan.

16 PANELEZ OSATUA

1996ko udaberrian jaio zen he-



Igandera arte egongo da zabalik NOAUA! aldizkariaren inguruko erakusketa.

rri aldizkari hau. 16 urte igaro dira geroztik. Denbora honetan guztian, gauza asko gertatu dira eta aldizkaria izan da gertaera horien guztien lekuko.

Sutegin ikusgai den erakusketan, hain zuzen, urteotan NOAUA!n jaso ditugun irudi batzuk eta albiste batzuk nabarmendu nahi izan ditugu. 16 panelen bitartez, 16 urteotako kontu batzuk ekarri nahi izan ditugu gogora. Panel horietan dira albiste deigarrienak, bi-

txienak... Ez dira denak. Baina daudenak, badira. Dena den, mahai batean, NOAUA! guztiak daude eskura, kontsultatzeko moduan.

IGANDERA ARTE IREKITA

Erakusketa igandera bitarte egongo da zabalik. Asteazkenean zehar, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Igandean, erakusketaren azken egunean, eguerdiko 12:00etatik 14:00etara egongo da irekita.

Segi horretan urte askoan

Gaur egun jende gehiena hirietan bizi da. Elkarren ondoan bizi direnek ere ez dute elkar ezagutzen. Igogailuan sartzen direnean, elkarri egunonak eman ere gabe, paretari begira jartzen dira.

Zorionez Usurbil ez da horrelakoa. Usurbildarrok elkar ezagutzen dugu gutxi edo gehiago eta gauza asko partekatzen ditugu. Herri bizia da Usurbil, eta bizitasun horren erakusgarri dira NOAUA elkarte eta NOAUA aldizkaria. Beldur ginen duela 16 urte horrelako aldizkari bat mantentzea ezinezkoa ez ote zen izango. Alabaina, posible izan da eta ez, gainera, hasieran pentsatu genuen maiztasunarekin, handiagoarekin baizik.

Zorionak, bada, etxe guztietara iristen den aldizkaria posible egin duten guztiei eta segi horretan urte askoan.

Andoni Sagarna,

euskaltzain osoa eta NOAUA! Kultur Elkarteo lehendakari izandakoa

Bertso berriak, NOAUA!ri jarriak

Jaio ezkerro ez dezu utzi hartu zenduen biderik etxetik etxe txokotik txoko ez zara egon geldirik gure hizkuntza irakurriaz herritar oro hezik eta alaitzen gera zu osasunez nola zauden ikusirik askok ez zuten usteko baina indartsu eta bizirik

Bostehun bat ale hainbat maitale baditu zure bihotzak aberatsena zure sormena herriak herriarentzat herriko gaiak eta berriak harturik zure mamizat lehen bi astero orain astero argitarapen bakoitzak guztia ez dezu guztiontzat baina beti zerbait guztiontzat

Iraundu dezu ta irau ezazu horixe dizut eskatzen orain bezela segi horrela gure herria zerbitzatzen hamasei urte iraganeko historia du osatzen saiatu zaite aurrerantzean beste hamasei jorrazten eta orduan hasiko gera etorkizunaz mintzatzen

Kerman Errekondo

ngo du asteburu honetan

Nafarroako konkista, dantza bidez aurkeztua

Ibarrako Alurr dantza taldekoen ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da **larunbat gau honetan, 22:00etatik aurrera Oiardo Kiroldegian**. Euren lan berriena, "Izanak dirau 1512" izeneko eskainiko dute goiko aretoan, NOAUA!k antolatutako Kulturaldiaren baitan. Nafarroako erresuman duela 500 urte gertaturikoa dantza bidez ezagutzera eman nahi dute.

Ekitaldirako sarrerak aldeztu aurretik 6 eurotan eskuratu ahal izango dira, Txiribogan, NOAUA!ko egoitzan edota egunean bertan. NOAUA!ko bazkideek 5 eurotan erosi ahal izango dituzte, aldeztu aurretik eta NOAUA!ko egoitzan.

"Gazta zati bat", igandean Sutegin

Euskal Herriko gaztazko politikoa era berritzailean aurkeztu duen "Gazta zati bat" dokumentala proiektatuko da Kulturaldiaren baitan, **igande iluntzeko 19:00etatik aurrera Sutegiko auditorioan**. Gaztazko ezaguna den Euskal Herriko udalerritxiki batean



Larunbatean, gaueko 22:00etan hasiko da Alurr dantza taldearen ikuskizuna. Sarrera, 6 euro (bazkideentzat 5, baina aldeztu aurretik NOAUA!n).

abiatzen da dokumentalaren haria. Hortik aurrera, munduan zer izan erabaki ahal izatea, misio handi horren inguruan garatuko da ikusentzunezko saioaren edukia, Eskozia eta Euskal Herria lekuko gisa agertzen direla. Jon Maiaren dokumentala ikusteko sarrera doakoa izango da.

Amaitzeko, Jon Sarasuaren saioa

Azaroko azken ostiralean, **hilaren 30ean, Xabier Leteren** kantutaldea batzuen aitzakian hainbat gairi buruzko gogoeta egingo du. 19:30etik aurrera Sutegin. Kantu Taldearen laguntzarekin antolatutako saio honetan sarrera doan izango da.



Jon Maiaren gidaritzapean, Nazioen Mundua izeneko herri ekimenak egindako dokumentala da "Gazta zati bat". Igande honetan Sutegin ikus ahal izango dugu, arratsaldeko 19:00etan. Sarrera doan.

"Publikoari gorroto" saioko sarrera denak agortu egin ziren

Sutegiko auditorioa, aspaldi ikusi ez bezala, toperaino bete zen larunbat iluntzean eskaintako antzezlanarekin. Ilara zegoen Sutegi sarreran, batzuk emanaldira sartu zain, beste batzuk sarrerak erosi nahian. Batzuk sartu ezinik ere geratu ziren. Ander Lipus protagonista duen emanaldi estreinatua berria, III. Antzerkizale Egunaren baitan programatua zegoen.



III. Antzerkizaleen Egunean esana: "Euskal antzerkia bizirik behar dugu"

Euskal Herriko Antzerkizale Elkar- teak Usurbil hautatu du aurtengoa- an, III. Antzerkizale Eguna ospatze- ko. Azaroaren 3an burutu ziren ekital- diak; goizean tailerrak, arratsaldean hiru antzezlan. Tartean, "Publi- koari gorroto" obrarekin batera, "...eta behia agertu da" antzezlan laburra, eta Irrien Lagunen eskutik "Kultura plazara". Baina aldarrika- penentzako tartea ere izan zen. Antzerki talde desberdinek burutu zuten kalejiraren ostean, frontoian, manifestu bat irakurri zuten. Eus- kal antzerkiaren beharra aldarrika- tuz.



Sarrereren salmenta



SERVIKUTXA KUTXAZAINAK
943 00 12 00
www.kutxa.net



ANDOAINO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



bastero
KULTURGUNEA

"LA CENICIENTA"

LaMov dantza konpainia
Taldeak 2. aldiz
Huesca-ko nazioarteko
dantza eta antzerki
jaialdian publikoaren
saria lortu du

